



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: BIOLA

2024-03-20

Nori zuzenduak?

Graduko Biola Interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko martxoaren 13an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Biola interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko errepertorio egokia

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

PUCHADES, Josep, TCHITCH, Natalia, DOBERS, Karsten

Ireneusz Jaglaren parte-hartzearekin

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30-11:00 Espezialitateko irakalseen hitzaldia irakasgai nagusiaren edukiei eta garapenari buruz

11:15-15:00 Natalia Tchich irakasleak eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat

11:15-15:00 Josep Puchades irakasleak eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat

16:00 Karsten Dobers irakasleak Orkestra Errepertorioa ikasgaiaren aurkezpen laburra egingo du

16:30 Musikeneko biola ikasleen emanaldia Ireneusz Jagla pianistarekin

17:30 Jardunaldiaren amaiera

Biola jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifikoko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Natalia Tchitch Hari Departamentuko buruarekin: dpto.cuerda@musikene.net